



BALOREZKO PROPOSAMENA

ATAL HONETAN BEZEROARI ESKAINIKO
DIOGUNA DEFINITU BEHARKO DUGU, ALEGIA,
ZEIN ARAZO KONPONDU EDO BEHARRIZAN
ASEKO DIOGUN.

ZER BEHAR EDO ARAZO KONPONDUKO DUGU

Hobeto ezagutzen dugun esparru batean mugitu ahal izateko, ikasten ari garen aho-hortzen higiene graduari lotutako enpresa bat sortzea erabaki dugu. Higienista baten funtzio nagusietako bat pertsonen ahoko patologia prebenitzen laguntzea denez, haurtzaroan prebalentzia handiena duen gaixotasun kronikoetako bat prebenitzen saiatzea erabaki dugu; txantxarra.

OMEren arabera, tratatu gabeko txantxarra munduan prebalentziarik handiena duen gaixotasuna da, eta 2.500 milioi pertsonari eragiten diela uste da. Kasu gehienak haurtzaroan gertatzen dira, ohikoagoa delako azukre asko duten elikagaiak kontsumitzea, ahoko higiene desegokiarekin batera.

Horregatik, txantxarra prebenitzen lagunduko duten gominola batzuk sortzea erabaki dugu, haurrek gozokiak jaten jarraitu ahal izateko, txantxarra izateko probabilitatea murriztuz.

- Link-a: [OMEren txostena](#)

Txantxarrak prebenitzen lagunduko duten gominolak sortu ahal izateko, lehenik eta behin, gozoki tradizionalak egiteko prozedura fabrika handietan nolakoa den aztertu dugu.

Ikusi dugu prozesu honetan enpresa handiek azukre eta gehigarri asko erabiltzen dutela. Beraz, gure gozokiak egiteko prozedura aldatuko dugu eta osagai desberdinak erabiliko ditugu batez ere erabiltzen duten azukre kantitate hori murrizteko, azukrearen funtzioa egiten duten beste elikagai batzuk aukeratuz.

Prozesua:

1. Hasteko, lapiko handi batzuetan su ertainean berotuko ditugu xilitola, gelatina, ura, kaltzio-hautsa eta fruta-zukua 5 minutuz.
2. Momentu oro, nahasten egongo gara beheko aldean pegatuta ez geratzeko eta kontuan izan behar dugu ez duela hirekitan hasi behar. Bueltak emango ditugu dena disolbatu arte.
3. Disolbatuta dagoena, sutik aterako dugu eta moldean prestatzen dugu, oliba olioarekin pintzeatuko dugu.
4. Gero gure moldean botatzen dugu gure nahasketa homogenoa eta gutxienez 8 ordu utzi behar ditugu solidifikatzeko.
5. Moldetik aterako ditugu gure gozokiak.


Osagaiak:

Ohiko gozokiek dituzten azukreak **xilitola** rengatik ordezkatu ditugu, hau ahoko osasunean propietate onuragarriak dituen edulkoratzailea da, izan ere, txantxarrak sortzen dituzten bakterioen hazkuntza prebenitzen dute.



Osagarri bezala, sukralosa, kaltzio hautsa eta fruten zukuak erabiliko ditugu.

- **Sukralosa** edulkoratzaile artifizial berria da. Edulkoratzaile osasuntsuenetako bat da, ez baitu inolako kaloriarik eta ez baitu inolako efektu metabolikorik sortzen irensten denean. Horregatik, edulkoratzaile osasuntsuenen artean bilatzen duten pertsonak, sukralosa onenetakoa da.
- **Kaltzio hautsak**, esmaltearen hidroxiapatita kaltzikoa birsortzeko gaitasuna dauka. Hidroxiapatita kaltzikoa (HAp) konposatu kimiko inorganikoa da, hezurren eta hortzen egitura mineralean aurkitzen dena, zehazki esmaltean, hidroxiapatitaren kristalez osatua dagoena. Hortzaren esmaltea birmineralizatzeaz arduratzen da, eta horrek txantxarra sortzea eta bakterioak atxikitzea saihesten du. Baita hortzaren erresistentzia eta gogortasunaren erantzule ere bada.



- **Fruten zukuak** D bitamina eta fibra emango digute. Mantenugai horiek ezinbestekoak dira hortz eta hezurren osasunerako. Kaltzio-hautsa sar dezakezu, edo elikagai horietan berez aberatsak diren osagaiak bila ditzakezu.
- **Zuntza** ere gehi ditzakezu, hala nola fruitu lehorrak edo zuntz ugariko osagaiak, listu-ekoizpena estimulatzeko, eta horrek azidoak neutralizatzen eta hortzetako esmaltea indartzen laguntzen du.

ZER BEREIZTEN DIGU

- Txantxarren prebalentzia eta intzidentzia jaitsiko dugu umeetan.
- Hortzak birmineralizatzeke produktuak izango dituzte, kaltzioa daramatelako eta honek hortza enamelaren hidroxiapatita kaltzikoa birsortzeko gaitasuna du.
- Zapora ona eta naturalak izango dituzte, izan ere, fruten zukuak erabiliko ditugulako zaporea emateko gominolei.
- Ez oso ohikoa den forma izango dituzte, hagin formakoak izango dira.
- Kolore desberdinak izango dituzte zaporearen arabera.
 - Txuria: anana
 - Berdea: sagarra
 - Arrosa: marrubia
 - Gorria: gerezia
 - Morea: masusta
 - Horia: banana
 - Laranja: tropikala
- Hagina forma duen lata bat salduko dugu eta horrela gominolak soltean erosi daitezke latan sartzeko. Hauek 3 euro balioko dute eta berrerabilgarriak izango dira, beraz, gominolak berriro erosi nahi dituzun bakoitzean hemen sartu ahal izango dituzu eta horrela hondakin plastikoak murriztuko ditugu.
- Ekonomikoak izango dira, 10 zentimo balioko dute.
- Salgai egongo dira gozoki dendetan eta supermerkatuetan.
- Klinikekin kontaktuan jarriko gara umei oparitzeko, beraz erosi baino lehen frogatzeko aukera izango dute.

